

Baleren Bakaikoa

Berastegi (Gipuzkoa); 1945. Ekonomian katedraduna EHUn. Munduko hainbat unibertsitatetan ikasi eta irakatsi du. Bidaia porrokatua: Lyongo eta Vancouverreko kongresuetan izan zen iaz, eta Sevilalara joanen da aurten. Kooperatibazalea, euskaltzalea – Barandiaran Lizeoko lehendakaria– eta ezker abertzaleko kidea: LAIA eta HBren inguruan aritua. Martuteneko espetxean izan zen frankismoan. Aralar alderdia du begiko gaur egun. EHUko Aurrera taldeak kaleratutako *Defendiendo país* (Erein) liburuaren zioz mintzatu gara. Politikaz, unibertsitateaz eta ekonomiaz jardun dugu luze eta zabal.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Maddi Soroa



«Nazionalistak hemen espainolak dira, gu bertakoak gara»

Euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitze eskubidearen alde eta ETA-ren jardueraren aurka. Horiek dira Baleren Bakaikoaren premisa politiko garrantzizkoenak: “Jakina ez nator bat Ibarretxek AHTren alde dituen argudioekin, adibidez. Baina subiranotasunean aurrera egiteko bere bitartez irekitako bidea besterik ez dago. Indarrak bildu eta gure buruaren jabe izanda hobe biziko garenaz konbentzitu behar dugu jendea. Gizarte hedonista da gurea. Ekonomia modernoak, garrantua eta orekatua eraiki behar dugu, baina adreiluz eta burdinez bete gabe. Txikia da gure lurraldea” esan digu.

EHU eta pentsamendua oro har izan ditugu solasaldiaren abiapuntu.

Belaunaldi berriak oso ondo prestatuta omen datoz EHUtik.

Bai, baina beren balioa ondo aprobeztatu gabe ari dira. Ez daukate lanpostu finkorik, ez unibertsitatean ez kanpo. Unibertsitatean norbait zara botere pixka bat duzun bitartean. Unibertsitatean nahiz gizartean lekua izan nahi baduzu, fideltasunak bilatu behar dituzu, eta fideltasuna askatasunaren kontrakoa da. Pentsamendu arloan ere halako zerbait gertatzen da. Pentsamendua beste inoren menpe jartzen baduzu fideltasun horrek zu promozionatzea ahalbidetzen du, baina askatasunez mugatuta. Unibertsitateko akats handiena hori da, aurrera egiteko beste batzuen itzalpean egin behar

duzu lan. Modu traketsa da gizartera zerbait duin ekartzeko. Ez da gure unibertsitatean bakarrik gertatzen, noski.

**Unibertsitatea izan da pentsamendua-
ren habia. Orain hedabideek kontrola-
tzen dute “pentsamendua” nagusiki.**

Eta belaunaldi berriek zerbait izan nahi badute, hedabideen menpe aritu behar dute hainbat urtetan. Hedabideetan ez bazaude ondo kokatuta ez zara inor, ez zara existitzen. Izugarritzko indarra daukate. Aurrera taldea osatzen dugunok unibertsitatean geunden, baina ez bageunde bezala ari ginen. Antolatu ginen eta bidea landu dugu. Zirrikitu txiki bat ireki dugu iritzia sortzen duten hedabide handietan.



"Kontzertu Ekonomikoaren ituna ona da, baina ez da nahiko garatu aurrerakoiagoa bihurtzeko. Indar politikoen korrelazioak baldintzatzen du gure zerga sistema".

Defendiendo país liburuaren egileetako bat zara. Azaldu iezaguzu berau.

Hainbat irakasle EHUKo irudia erabat itxuraldatuta zegoela konturatu ginen. Erdal prentsa nagusia irakurtzen duen jendearengana iristeko konpromisoa hartu genuen, gehiengoak irakurtzen duen prentsara: *Diario Vasco* eta *El Correo*a, besteak beste. *El País*ek nola-baiteko betoa jarri digu, ordea. Ohargarria! Liburua azken bost urteotan idatzitako artikuluez osatuta dago. Bere bidez euskal herritarrek ohartarazi nahi ditugu –Ermuko Foroa edo Profesores por la Libertad ekimenaz gain– unibertsitatean badagoela gehiengo bat, euskaltzalea, Euskal Herriko auziari irtenbidea eman nahi diona Euskal Herritik.

Euskal nazionalismoan "argi gorriak" antzeman dituzue egileek nonbait. Zein da zure iritzia?

EAJk hogeita bost urte darama EAEko agintean eta denetarik dago,

noski. Oportunistak boterean sartzeko prest daude betiere. Irungo Ogasun afera adibide bat besterik ez da. Jon Jauregiren inguruan gertatu zena ere ezin dugu onartu herritarrok. Nik ez dut Jon Jauregi akusatu nahi, baina agintariak iruzurren susmorik txikiena argitu behar dute eta areago diru kontuetan. Guztiok aitortpena egiten dugu Ogasunean eta politikari batek are argiago. Ogasunaren buruaren aitortpenak garden-gardena izan behar du. Horretan tolerantzia zero behar da. Abertzaleon jarduna sendotu nahi bada, iruzurren susmo txikiena uxatu beharra dago.

Aurrera taldea nazionalista edo *bas-kistatzat* joa da. Termino horiek ez dute abegi guztiz ona, antza.

Nazionalismoari atxikia ez izan arren bada jende bat –Eusko Ikaskuntzaren inguruan, esaterako– bere inguruan biltzeko modukoa. Herri hau eraikitze-ko sektore hauek kontuan hartu behar

dira. Nazionalismo hitzak estigma moduko bat du, gainditu behar duguna. Nazionalistak hemen espainolak dira, gu bertakoak gara. *Baskista* hitza berriz, politikoki definitzea zaila da. Euskaraz euskaltzaleak gara, politikoki eusko zaleak akaso.

Itunaren kultura landu beharra ageri da liburuan. Nola ikusten dituzu politika eta gizartea?

Desmotibazioa arazo larria da. Jendea ez da masiboki mugitzen, muturreko egoeran ez bada: *Egunkariaren* itxieran, kasu. Azken hogeita hamar urteotan hainbeste mobilizazio izanda, baliabide hori agortu da. Gizartearen ekimena ahul ikusten dut. Politikan berriz EAJk gehiengo osoa balu bezala funtzionatzen du EAEn. Gehiengo bat baina ez osoa. Hitzartzen ikasi behar du. Ahulezia hori orain gutxi ikusi dugu Sozietatearen Gaueko Zergan. Bizkaia eta Araban gauza bat atera da eta Gipuzkoan beste bat. Erridikulua da. Zergen gainean hori gertatzeak hitzarmenerako gaitasun eskasa ageri du, gerrikerik eza agertu du EAJk.

Arabako Foru Aldundian PP gobernu-buru zela gertatu ez zena. Bitxia, ezta?

Bai. Baina zergatik? Gehiengorik ez dagoelako. Eta EAJk gehiengo bat bezala jokatzeko du.

"EAJk gehiengo osoa balu bezala funtzionatzen du EAEn. Gehiengo bat baina ez osoa. Hitzartzen ikasi behar du"

Nola ikusten duzu EAEko zerga sistema oro har?

Gure zerga sistema nahiko osatua da eta aukera ematen digu sistema aurrerakoiagoa gauzatzeko. ELAK sistema atzerakoa dela dio, hori kritikatzeko, eta hala da. Baina hori gertatzen da indar politikoen korrelazioa desegokia delako. Kontzertu Ekonomikoaren ituna ona da, baina ez da nahiko garatu aurrerakoiagoa bihurtzeko, indar korrelazioak ez du aukera hori ahalbidetu. Indar politikoen korrelazioak baldintzatzen du gure zerga sistema.

EUSKAL GATAZKA EBAZTEKO AUKERAREN MAUKERA

“Espainiak demokrazia homologatua izan nahi badu, erabakitzeko eskubidea onartu beharko du”

EUSKO ALDERDI JELTZALEAZ. “Gorabeherak izan ditu azken 30 urteetan. Hala ere, trantsizioan ez genuen uste Lizarra-Garaziko Akordioa bezalako batean parte hartuko zuenik. Porrotaren ondoren Egibarren ildo atera zen galtzaile, abertzale guztien arteko proiektu komuna bultzatzen duena. Beraz, EAJ akordio hartan egotea ahalbidetu zuen jendearen aldean joan beharra ikusten dut, eta ez egurra ematea. Imazen eta Egibarren arteko lehian Ibarretxek behin-behineko garai-pena lortu du. Oraingo EBBk ez dakit bide hori hartuko duen, baina Ibarretxek bai. Politikariak erraz aldatzen dira, noski, ez zaie atzera biderik utzi behar, ordea. Agian, nire ideia horrela agertuta EAEra soilik mugatzen naizela dirudi. Baina errealitatea hau da: EAEko abiadura politikoa Nafarroakoa baino azkarragoa da eta Iparraldearekikoan zer esanik ez. Irlandan zer gertatu zen? Independentziara pausoa Hegoaldeak eman zuen. Begira non dauden. Guk Sarkozyren UMPri botoa ematen dioten zuberotarrei gipuzkoarrek batera hobeto biziko direla erakusten badiegu, laster konbentzitu ditugu gurekin batera etortzeko”.



EZKER ABERTZALEAZ. “Penagarria da hainbeste sufritu duen ezker abertzaleak bizi duen egoera, baita emaitza horren kaskarrak izatea. Abangoardiaren menpe dago, egia omen duen abangoardiak hipotekatuta. Pentsamendu gutxiko abangoardia, bide-nabar esanda. ETAk ezker abertzalearen baliabide guztiak jarri ditu bere zerbitzura. Estrategia zaharra. Egia da, PSOEek sortu zituen itxaropenak PSOEek berak zapuztu dituela neurri batean. Kultura demokratikoa oso ahula da Espainian, Inkisizioa ez da amaitu oraindik. Baina ez nago ados PSOEek ezker abertzalea erabat suntsitu nahi duela esaten dutenekin. Ezker abertzaleari irtenbidea bilatzeko zirrikitua ireki zaio. ETAk su-eten iraunkorrean jarraitu izan balu erabakitzeko eskubidearen aldeko aukera indartuko zen. Espainiako Estatuak demokrazia homologatua izan nahi badu, erabakitzeko eskubidea onartu beharko du. ETAk seinale argiak eman beharko lituzke aro berria irekitzeko eta Batasuna bide politikoetan sar dadin. Erabakitzeko eskubidea indartzeko modu bakarra da. Edonola ere, erabakitzeko ariketa bideratuta ere auzi politikoa beti izango da bizirik”.

UEUren eskutik argitaratu duzun *EAEko Ekonomia Ituna eta Nafarroako Ekonomia Hitzarmena* liburuan Nafarroako Hitzarmenak lege-babes handiagoa duela diozu. Argitu hori.

Nafarroako Itun ekonomikoaren oinarrian legeak daude. Nafarroan Legebiltzarrak garatzen du Ituna. Hitzarmenak lege kategorioa dauka. EAEen berriz Gasteizko Legebiltzarrak dauka lege kategorioa, bertatik ateratzen da lehen testua eta ez lurraldez lurraldeko Batzar Nagusietatik. EAEkoak arau foralak dira, ez legeak.

EAEkoa arau izanda, edozein enpresarik errekurtsoa aurkeztzen duela diozu. Eta trabatu ere nolabait. Adibidez, Errioxako Enpresarien Elkargoak helegitea jarri dio EAEko Sozietatearen Gaietako Zergari. Lege baltz ez litzateke hori gertatuko. Hori konpontzeko eta arauak lege izaera izan dezan Gasteizko Legebiltzarra formularen bat aztertzen ari da. Liburuan Armonizazio eta Koordinazio fiskalaren legea aztertu dugu. Agian egin dugun legearen azterketari buruzko ekarpena aplikatu daiteke. Hala ere, Eusko Legebiltzarraren osaketa dena da, koska indar politikoen korrelazioa aldatzea da.

Testuinguru honetan nola ikusten duzu Ipar Euskal Herriko ekonomia?

Munduko nahiz Europako ekonomia eskualdeka [erregioetan] ari da antolatzen. Frantziakoa Parisko eskualdean edota Lyongoan. Ipar Euskal Herriak logikoki Hego Euskal Herriarekin batera garatu beharko luke. Baina paradoxikoa ere bada, duela hamabi bat urte Ucin siderurgia enpresa Baionara eraman zutenean, hainbaten kexua entzun zen. Euskal Herria proiektu soziopolitiko ekonomiko bezala hartzen dugu bai ala ez? Nik konfiantza daukat, hala ere. EHUen ikasle gazteak tesiak garatzen ari dira tokian tokiko garapena bultzatzeko. Esperientzia eta formula kooperatiboak badaude halaber.

“Euskal Banku Publikoaren proiektua itxura egiteko besterik ez da” esan zenuen aspaldi ARGIAN.

“Kutxen fusioa PSOEn beldur politikoarengatik ez da gauzatu. PSOeri ez zaiola Euskadi interesatzen ageri da hor, bost axola zaio Euskal Herria”

18 urte joan dira harrezkero... Euskal Herriko Nazio Estatuaren agerian Euskal Banku Publiko Zentrala landu zuen Herri Batasunak (HB). Ekonomia atalaren ponentzian aritu nintzen lanean ni neroni. Benetako bankua garatzeko bitartekoak landu genituen, hemengo inbertsio estrategikoak bideratuko zituztenak. Egitasmo hori gauzatzen ez den bitartean ez dago ezer egiterik. EAEko hiru Kutxen batzea ere aipatzen zen ponentzian.

Hiru kutxen batzeaz artikulu bat dago *Defendiendo país* liburuan.

Aurrera taldekideek goitik behera defendatu dugu ekimen hori. PSO-Eren beldur politikoarengatik ez da gauzatu, ordea. PSOeri ez zaiola Euskadi interesatzen ageri da, bost axola zaio Euskal Herria.

Ibarretxe Planaren bidean sortu daiteke Euskal Banku Publikoa?

Pauso batzuk eman litezke. Baina, erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena garatzeko eta indar politikoa metatzeko gizartea konbentzitu behar dugu, hobekiago biziko garela erakutsi behar zaio. Hori egiten ez dugun bitartean, Euskal Banku Publikoarena kea saltzea da. ■